

Batu zaitez Oñatiko energiara

Energia merkaturatzaile propioa sortzeko prozesuari hasiera eman dio Udalak

Erabilgarria

Orbitaria

Hetbidea
Oñati

Prozeduraren puntua



DAGOKIGUN ENERGIARA

Ikuskizun berria



Euskaraldia



“Elkarrekin topa!” izeneko ikuskizun berria aurkeztu dute Potx eta Lotxek pailazoek. Oholtza gaineko bost urteko ibilbidea ospatu nahi dute lagunekin.

Martxoaren 14an zabalduko da Euskaraldian izena emateko epea. Maiatzaren 15etik 25era egingo da aurten euskararen aldeko ariketa sozial kolektiboa.



Izaro Elorza, alkatea, eta Xabier Igartua, energia gaietarako zinegotzia, sortu asmo duten Oñatiko energia merkaturatzaileari buruzko informazioa ematen herritarrei

"Oñatiko merkaturatzailearen bidearekin bat egiten duen herritarrak gaurdanik igarriko ditu aldaketak"

Oñatiko energia merkaturatzailea sortzeko prozesua hasi du Udalak. Besteak beste, helburua da herrian sortzen den energia berriztagarria herritarrek modu zuzenean kontsumitu ahal izatea, bidezko eredu batean, merkaturako espekulaziotik aldentuta, herritarren beharrak erdigunean izanda... Otsailean herritarrei begirako hainbat hitzaldi informatibo eskaini ditu Udalak prozesuaren berri emateko. Merkaturatzailea urtebete barru sortuko den arren, irabazi asmorik gabeko kooperatiba eta Oñatiko Ur Jauzietako bazkide den **Goienar**-ekin sinaturiko akordioari esker, dagoeneko bada Oñatiko energia berriztagarriaren bidearekin bat egiteko aukera. Prozesuaz jardun dugu Izaro Elorza Arregi alkatea eta Xabier Igartua Loidi energia gaietarako zinegotziarekin.

Energia merkaturatzaile propioa sortzea erabaki du Oñatiko Udalak. Zergatik? Zein da helburua?

Hala da. Energia merkaturatzaile bat sortzeko bidea hasi dugu. Borondatea dago eta horrek eskatzen duen lan guztia egiteko prest gaude. Prest gaude, uste dugulako unea dela urrats hori egiteko. Uste dugu Oñatiri badagokiola energiaren ziklo osoa bereganatzea (sorkuntza, banaketa eta merkaturatzea), eta baldintzak badaudela. Finean, Oñatiko Ur Jauzien bidez

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia

Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza

- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna

- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalansoccidente.com

herrian sortzen den energia berriztagarria herritarrek etxean modu zuzenean kontsumitzea ahalbidetuko du. Bidezko eredu bat izango da, merkatuko espekulaziotik aldenduko dena, Oñatikoa, herritarren eta herriaren beharrak erdigunean izango dituenena, %100 berriztagarria den argindarra eskainiko duena... Urrats esanguratsua izango da energiaren burujabetzarako, eta erreferenteago bilakatuko du Oñati.

Oñatin sortutako energia berriztagarria oñatiarrek modu zuzenean kontsumitzea ahalbidetuko duela diozu. Sortzen al dute Oñatiko Ur Jauziek herritarren argindar beharrak asetzeko adina energia?

Bai. Urtean sortzen den argindar berriztagarria herriko etxeetan (herrigunean, landa auzoetan...) kontsumitzen dena hainakoa da. Urtaro batzuetan, euri asko egiten duenetan, beharrezko duguna baino gehiago sortzen da; eta, euri gutxiago egiten duenetan, normalean, gutxiago. Dena den, energiaren alorrean, urteko datua hartzen da kontuan. Hori horrela, posible dugu merkaturatzaile propioa izatearen abantailak herriguneko zein landa auzoetako etxeetara eta herriko komertzioetara eroatea.

Herriko merkaturatzailea sortzeko prozesuan eman beharreko lehen urratsa CHC Energia enpresatik irteeta da, ezta?

Hori da. CHC Energiak dagoeneko badaki Oñatik haren agente komertzial izateari utziko diola. Eta, orain, prozesu horretan gaude murgildurik. Harremanetan gaude eurekin, prozesua bera adosten, jakin badakigulako asko direla argindar kontratua CHC Energiarekin duten herritarrak. Ahalik eta ulergarrien egin gura dugu prozesua, gardentasunez, herritarrak nahastu barik, erraztasunak eskainiz. Epe motzera, CHC Energiari lotutako arreta eskaintzeari utziko dio Bidebarrietako energia bulegoak. Hilabete gutxiren kontua izango da. Zenbat hilabetekoa izango den? Ez dakigu oraindik. Hori ere adosten ari baikara CHC Energiarekin, izan ere, gure asmoa ez da izan arreta hori egun batetik bestera moztea, jakin badakigulako herritar ugari daudela ohituta euren argindar



▲ Jakin-min handia piztu dute Udalak sortu asmo duen Oñatiko energia merkaturatzailearen inguruan antolatutako informazio saioek



**URRATS
ESANGURATSUA
IZANGO DA
ENERGIAREN
BURUJABETZARAKO,
ETA
ERREFERENTEAGO
BILAKATUKO DU
OÑATI**

kontratuak Bidebarrietako energia bulegoan kudeatzera, eta Oñatik hasia duen prozesu honetara batu gura duenari lagundu beharra diogula trantsizio fase honetan, beharrezko den denbora eskainiz.

Erabaki horrek izango al du bestelako eragirik gaur egun argindarra CHCekin kontratatuta duten herritarrengan?

Erabaki honek ez dakar, adibidez, argindar kontratua CHC Energiarekin duten herritarren kontratua etetea edo argi barik gelditzea. Argi utzi gura genuke hori, lasaitasun mezu bat helarazi. Hori bai, lehen esan moduan, hilabete gutxi batzuk igarota, CHC Energiaren agente komertzial izateari utziko dio Bidebarrietako energia bulegoak. Horrek esan gura du hortik aurrera kontratua CHC Energiarekin duten herritarrek ezingo dutela bertara joan merkaturatzaile horrekin loturiko tramiteak egitera. Hortik aurrera, bestelako energia enpresek darabilten bideak erabili beharko dituzte. Dena den, bulegoa ez da itxiko. Bulegoa hor egongo da, zabalik, herritarrak merkaturatzailea sortu arteko trantsizio fase honetan eta merkaturatzaile berria sortzen denean laguntzeko.

(→)


**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Ultzezin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837


**AYESTARAN
RAIKUNTZAK S.L.**
Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com
obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak

Urtebete itxaron behar da CHC Energiaren delegaritza izateari utzi eta merkaturatzaile propioa sortu arte. Beraz, urtebeteko transizio epe bat hasten da orain. Dena den, dagoeneko, bidearekin bat egiteko aukera eskaintzen du Udalak.

Hala da. Oñatiko Ur Jauzietako bazkide den irabazi asmorik gabeko Goiener kooperatibarekin sinatu den akordioari esker, herritarrek dagoeneko badute hasia dugun bide honekin bat egiteko aukera. Ez da Goienerrekin sinatzen den ohiko kontratua izango. Herritarrek ez dute Goienerreko bazkide bilakatu beharrik izango, eta kontratua ez da Goienerrek eskaintzen duen ohiko bidetik sinatuko. Oñatiko energia bulegoaren bidez egingo da aldaketa, prozesurako propio sortu den online inprimaki bat beteta (oñatikoenergia.eus/inprimakia), edo, aurrez aurre, Bidebarrietako energia bulegoan. Erraza da. Merkaturatzaile aldaketa gaurdanik egin daiteke. Alegia, herritarra, gaurdanik hasi daiteke argindar %100 berriztagarria eskuratzeko, bidezko eredu baten bitartez, ohiko energia enpresek etekinak maxifikatzeko dituzten helburuetatik aldendurik, aurrez aurreko arretarako aukerarekin –Bidebarrietako energia bulegoan eskainiko da... Garrantzitsua da herritarrek gaurdanik batzea hasia dugun bide honetara.

Landa auzo batzuetan CHC Energia ez den beste merkaturatzaile batzuk dira nagusi. Horiek ere badute aukera Oñatiko argindar merkaturatzaile berriarekin bat egiteko?

Noski. Herri osora begirako proiektu baten inguruan ari gara. Gure nahia da merkaturatzaile propioa izateak dituen onurak herrigunean zein landa auzoan bizi diren herritarrengana heltzea, baldintza berdinetan. Bide batez, argitu gura genuke merkaturatzailea edozein dela ere (CHC Energia ere bai), herritarrek hasi beharra duela argindar merkaturatzailea aldatzeko tramitea; eta egun sinaturik duen kontratua bertan behera uzteko, ez duela haren merkaturatzailearekin harremanetan jarri beharrik izango. Aski du online inprimakia betetzearekin (oñatikoenergia.eus/inprimakia) edo Bidebarrietako bulegora joatearekin. Bulegoko kideak arduratuko dira aldaketa egiteaz.

Herri proiektu bati buruz hitz egiten ari gara, ezta?

Hala da. Eta horregatik da garrantzitsua herritarrek gaurdanik batzea bide honetara. Proiektu honek herri izaera du, eta herritar ororen babesa behar du. Abian jarri dugu uste dugulako aukera onena dela Oñatirendako eta oñatia-



EPE MOTZERA, CHC ENGIARI LOTUTAKO ARRETA ESKAITZEARI UTZIKO DIO BIDEBARRIETAKO ENERGIA BULEGOAK



OÑATIKO UR JAUZIEN BIDEZ HERRIAN SORTZEN DEN ENERGIA BERRIZTAGARRIA HERRITARREK MODU ZUZENEAN KONTSUMITZEA AHALBIDETUKO DU MERKATURATZAILEAK

Argindar %100 berriztagarria, gaurdanik

Urtebete igaro behar da Oñatiko energia merkaturatzailea martxan jarri ahal izateko. Epe horretarako Udalak akordioa sinatu du **Goiener** kooperatibarekin, %100 berriztagarria den argindarra eskuratzen hasteko. Merkaturatzaile aldaketa erraz egin daiteke: oñatikoenergia.eus/inprimakia helbideko inprimakia beteta, edo Bidebarrietako energia bulegoan, aurrez aurre.

rrantzako, badaudela baldintzak, esperientzia eta bermeak. Azken urteotako testuinguru nahasiek erakutsi digute energiaren merkatua oso gorabeheratsua dela, oso zaila dela ulertzeko gertatzen ari dena eta horretaz ere baliatzen direla zenbait enpresa. Uste dugu herrian sorkuntzarako eta banaketarako azpiegiturak izanda, sortzen eta banatzen den argindar hori herritarrengana eroatea dagokigula, aukera izan dezaten %100 berriztagarria izango den bidezko eredu bat izateko, Oñatiko, espekulaziotik aldendurikoa, herritarren beharrak erdigunean izango dituen, gardena, konfiantzazkoa... Horregatik guztiagatik, Oñatiko merkaturatzailearen bidearekin bat egiten duen herritarrek gaurdanik igarriko ditu aldaketak.

Eta prezioan izango da alderik?

Hasiera batean, merkaturatzailea sortu arte, argindar merkatuaren joko arauak dira nagusi. Ezingo da askorik eragin prezioan. Dena den, horrek ez du esan nahi urtebete honetan espekulazioaren tranpan jausiko garenik. Goienerrekin sinatu dugun hitzarmenak kontra egin gura dio horri, eta herritarrek erdigunean izanda, bidezko eredu bat eskaini nahi du, aurretik aipatu ditugun abantaila guztiekin. Urtebeteko bide honetan Goiener izango dugu bidelagun. Irabazi asmorik gabeko eta Oñatiko Ur Jauzietako bazkide da; erreferente, gizarte konpromisoan eta energia berriztagarrien alorrean.

Ostera, urtebete igarota, zergatik egin behar lukete herritarrek bat Oñatiko merkaturatzailearekin? Ze onura ekarriko die herritarrei?

Hasteko, merkaturatzailearen espekulaziotik aldenduko direlako, bidezko eredu batekin bat eginez, Oñatiko, %100 berriztagarria, gardena, herritarren beharrak erdigunean dituen, bidezko prezio orekatuak eskainiko dituen, konfiantzazkoa... Eta herri proiektu baten inguruan ari garelako. Hau da, eman dugun urrats honek ahalbidetuko du herritarrei herrian argindar sortzaile eta banatzaile bat izateak dituen onurak heltzea. Oñatin sorturiko energia berriztagarria zuzenean iritsiko da herritarren etxeetara, horrek dituen abantailekin. Gainera, testuinguru nahasietan, herrian bertan hartu ahal izango ditugu argindarrari loturiko erabakiak, eta energiaren testuinguru orokorren gorabehera, desoreka eta nahasmenetatik aldendu ahal izango gara, momentu bakoitzean Oñatirentzat eta oñatiarentzat egokienak diren erabakiak hartuz. Hor, beste merkaturatzaile bat duenak, ez ditu erabaki horiek igarriko, ez baita egongo gurea ez den beste merkaturatzaile batean eragiteko aukerarik. Beraz, asko dira bat egiteko arrazoiak. ■

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

- 500 Mb-eko ZUNTZA
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 50 GB PARTEKATZEKO

2. LINEA
DOAN
12 HILABETEZ

34,90 €/HIL
BEZa barne
linea-kosta barne



Eta dohainik eraman aire
bidezko TRISTAR frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontratatzuz

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZa barne). Eskaintza hau 2025/03/31ra arte balio du, eskaintza kontratatzen baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea dei mugagabeekin eta partekatze 50 GB-rekin, hilean 34,90 € ordainduta 12 hilabetez. 12. hilabetetik aurrera, 2. mugikor-lineari eusten badituzu, prezioa 37,90 € izango da. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalarekin lotuta. Existenziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL
AURREZTU, ETA KITO

Genero-berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoak onartu ditu udalbatzak



▲
Martxoaren 8aren harira herriko eragile ezberdinek antolaturiko ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu die Udalak herritarrei

1995ean Beijing-en egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferenziaren 30. urteurrena betetzen den honetan, orduan adostutako berdintasunaren aldeko helburuak lortzen jarraitzeko borondatea berretsi du udalbatzak, eta, ildo horretan, honako konpromisoak hartu zituen otsaileko plenoan:

- Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezen eta eragin dezaten.
- Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonen berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.
- Oñatiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko, eta emakumeen etxea koordinazio egituren barruan integratzeko.
- Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.
- Zaintzen ekonomia eraldatzeko tokiko prozesua abian jartzea, ikuspegi feministatik.
- Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko tokiko ekintza-planetan jasotako ekimenen gaineko kontuak ematea, aldian-aldian.

M8 - EGITARAUA

MARTXOAK 8

Goizean euskal panorama musikalaren inguruko solasaldia **Aiert** eta **La Furia Rap**-en eskutik, Antixena gaztetxean

12:00 Kontzentrazioa Olakuan. Ondoren, sorgin-salda eta txorizo mokadua Lagun Lekun.

14:30 Bazkari feminista gaztetxean

18:00 'Emakumeek idatzia', Hots abesbatza, Santa Ana aretoan

18:00 Manifestazioa, Foruen plazan

MARTXOAK 9 /

10:30 Emakume artisauen azoka, berdura plazan

MARTXOAK 13 /

19:30 Zine-Kluba: *Mi única familia* (Mike Leigh)

MARTXOAK 19 /

19:00 Filosofia tertulia: 'Nola baldintzatzen gaitu adinak?' Maitane Nerekan filosofoa eta Lizar Begoña idazlearekin.



LGTBIQ+ errealitateari buruzko galdetegia

Dakizuenek, Udala herriko LGTBIQ+ errealitatea ezagutzeko diagnostikoa egiteari ekin dio. Hasita dago, jada, lehenengo hartu-emanak lotzen, baina herritar gehiagoren bizipenak jaso ahal izateko, galdetegi bat sortu du. Era **anonimoan** bete ahal izango da, eta erabateko konfidentziasunez erabiliko da galdetegietan jasotako Informazioa. Galdetegietan jasotakoan oinarrituta, zenbait lan saio proposatuko dira apiriletik aurrera. Ondoko QRan daukazue galdetegirako lotura.



Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^e del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA

CONSTRUYENDO LA CASA DE LAS MUJERES
PROCESO PARTICIPATIVO



FORMAKUNTZA PILULA

Talde-antolaketa horizontalerako gakoak, soziokrazia eta beste eredu batzuen eskutik.



Ana Perezek eta Garoa Gartzandiak, Aise Kooperatibako kideek, talde-antolaketa horizontalari buruzko hitzaldia eskaini ziguten urtarrilaren 31an. Oñatiko askotariko eragileek gonbidapena onartu eta jende ugari bildu ginen. Lerro hauen bidez eskerrak gerturatu zineten guztioi. Espero dugu bertan ikasitakoak zuen egunerokoan baliagarriak izatea.

Hurrengo egunean, otsailaren 1ean, soziokraziaren teorian sakontzen jarraitu genuen, eta gurera ekartzen. Izan ere, etxeko jarduerak eta antolatzeko moduak koherentea izan beharko luke. Hori garbi daukagu. Galdera hauen inguruan aritu ginen: gure erakundea horizontala ala bertikala da? Zein dira erabakiguneak? Eta elkarrekin komunikatzeko kanalak?



Badugu gai honen inguruan zer landu, baina gaur gaurkoz, soziokraziaren printzipioak oinarri izanda hurrengo hilabeteetarako lan egiteko arauak adostu genituen: onespén bidez

erabakiak hartzea, zirkulu txikitán lan egiten jarraitzea, zirkuluen arteko loturetarako dinamizatzailearen figuraz baliatzea eta hautagairik gabeko aukeraketak egitea.

MARTXAN DITUGU OÑATIKO EMAKUMION ETXEKO LAN TALDEAK

Lan taldeetan izena eman nahian zabilta baina oraindik ez duzu pausua eman?

Zatoz, probatu, eta ez bazaude eroso, aldatu!


Saltserak, Bisionariak, Gobernantak, Zubigileak eta Programatzaileak.


www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia




JARRAI GAITZAZU!

Lan taldeetara oraingoz ez zara animatuko baina prozesuaren berri izan nahi duzu? Informatuta egon nahi duzu?

 Oñatiko emakumion etxia

 @emakumionetxia

 www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia

Gizonak parekidetasunerantz

Parekidetasunerantz urratsak eman nahi dituzten gizonen zuzendutako **Foro Irekia** antolatu da Emakumeen Jabetze Eskolaren baitan

Hausnarketarako, beraien ezinegonak eta kezkak partekatzeko, eta kritikarako nahiz autokritikarako espazioa eskaini nahi da

Lehenago ere egin izan dira gizonetzkoen zuzendutako tailerrak Emakumeen Jabetze Eskolaren baitan, baina oraingoan **Foro Ireki** formatuan antolatu dute. Hiru astean behin egingo dira saioak, eta izenak berak dioen moduan, irekiak izango dira, hau da, edozein gizonek parte hartu ahal izango du saio bakoitzean. Parekidetasunerantz urratsak eman nahi dituzten gizonen zuzendutako espazio bat eskaintzea da helburua, beraien ezinegonak eta kezkak partekatzeko, eta kritika zein autokritika egiteko. Foroa gidatzen duen Joseba Gabilondo Marquesekin izan gara.



Joseba Gabilondo Marques, *Hiruki Larroxa* kooperatibako kideak gidatu eta dinamizatzen du Gizonen Foroa

Gizonen zuzendutako tailer ezberdinak gidatu izan dituzu Oñatin, baina oraingoan Foro Ireki formatua eman diozue. Zer dela eta?

Idea da parekidetasunaren edo feminismoaren gaiaren inguruan ezinegona, kezka edo zalantzak dituzten eta gai horien inguruan deseroso sentitzen diren gizonetzkoen lasaitasunez berba egiteko espazio bat eskaintzea, beste gizon batzuekin batera.

Zer nolako gaiak jorratuko dituzue foroan?

Ezin dizut zehaztasunez erantzun, asmoa baita parte hartzen duten pertsonen interesetatik abiatutako gaiak lantzea.

Askotariko gaiak izango dira, baina aurreneko saioan, esaterako, gizontasunaren inguruan entzuten ditugun ideiak aletzen hasiko gara, eta gutako bakoitzak nola bizi ditugun aztertuko dugu; adibidez, gizonak biolentoak garela entzuten dugunean, edo nola bizi dugun gizonen ezartzen zaigun 'lider' papera, edo esaten denean gizonak emozionalki traketsak garela, adibide batzuk jartzearen.

Horrez gain, mugiarazten gaituzten gai edo egoera ezberdinen inguruan ditugun jarrera edo erreakzioak ere aztertuko ditugu; adibidez, gure inguruan komentario matxistak entzuten ditugunean, edo kanpotik geure jarreraren bat seinalatzen digutenean

zein den gure erreakzioa... Sexualitateaz ere hitz egin ohi dugu. Askotariko gaiak, ikusten duzun moduan, baina beti ere, foroan parte hartzen duten pertsonen bizipenetatik abiatzea da gure asmoa.

Zein metodologia jarraitzen duzu saioetan?

Gaiaren arabera moldatuz joango gara hori ere, baina, oro har, helburua izango da gai bakoitzaren inguruan dauden iritzi guztiak elkarriketan jartzea. Talde prozesuen bidelaguntzan edo fasilazioan trebatua naiz, eta saiatzen naiz gai baten inguruan egon litezkeen begirada ezberdinak ateratzen eta elkarriketan jartzen, eta iritzi kontrajarriak daudenean, *rol-play* baten bidez geureak ez diren iritziak dituzten pertsonen lekuan jartzen.

Azken finean, gai ezberdinen inguruan dagoen iritzi eta esperientzia aniztasuna mahai gainean jartzea izango da helburua, ahalik eta begirada zabalena edukitzeko.

Ba al dago adin mugarik edo bestelakorik foroan parte hartzeko?

Ez, adin mugarik ez dago, eta, gainera, esperientziak esaten dit adin ezberdinetako jendea egotea oso aberasgarria izaten dela, zeren ez baita berdina gizontasuna nola bizi duen gaur egun 18 urteko mutil batek eta 50 edo 60 urteko gizonetzko batek. Eta

gizon eredu nola aldatzen den ikustea ere interesgarria da, moldagarria dela konturatzeko.

Garbi dago gizartea parekidetasunerantzko urratsak ematen ari dela, baina egia da, halaber, benetako parekidetasuna lortzeko ezinbestekoa dela gizonen jarrera aldaketa bat hainbat arlotan. Prest ikusten al dituzu gizonak maskulinitate tradizionala zalantzan jartzeko?

Hiruki Larroxa moduan lanean gabiltzanetik, gizonetzko asko pasa dira gure tailerretatik eta nik esango nuke gaia nahiko presente dagoela. Uste dut badagoela jende bat gauzak ondo egin nahi dituen, eta konturatzen ari dena genero sozializazioak nora eraman gaituen, eta horren ondorioz ze jarrera izaten ditugun. Eta hori feminismoari esker izan da, neurri handi batean.

Egia da, bestalde, bada-goela kontrako erreakzio bat ere aldaketa hauen aurrean. Guk ulertzen dugu inkomodidade edo deserosotasun baten ondorio dela, eta hiru bide edo modutan kanalizatu ahal dela: bat da izoztuta edo geldi geratzea, "hau ez da nire mobida" esatea, eta bide indibidualista bat hartzea. Beste bat izan daiteke zeozer mugitzea gure barrenean, "nik zeozer egin nahi dut" esatea eta gure jarrerak berrikustea, adibidez, era honetako tailer edo foroetan parte hartuz. Eta hirugarrena da, tamalez, jokabide erreakzionarioa hartzea, eta ikusten ari gara eskumako eta ultra eskumako espektroa oso ondo erabiltzen eta kapitalizatzen ari dela bide hau, eta askok hortik jotzen dutela.

Nik uste dut inkomodidade horren inguruan berba egin behar dugula, zeren, bestela, pribilegioei uko egin behar diela soilik esaten badiegu gizonen, horrek frustrazioa



Hiru astean behingo saioak

Hiru astean behin, asteazkenetan, egingo dira 'Gizonak parrekidetasunerantz' foro irekiko saioak. Udalak San Juan kalen daukan erabilera anitzeko gelan dira saioak, arratsaldeko 17:30etan hasita. Foroa irekia da eta, bera, edozeinek parte har dezake saio bakoitzean, aurrez izena eman beharrik gabe. Hurrengo saioa martxoaren 5ean izango da. Informazio gehiago nehar izanez gero: berdintasuna@onati.eus / 943 780 411

» ***Patriarkatuak gizonetzko eman dizkigun pribilegioak ezbaian jartzea ondo dago, baina hori baino inportanteagoa iruditzen zaiz gizonok boterearekin dugun harremanari buruzko gogoeta egitea***

» ***Parekidetasunerantz urratsak ematen hasi nahi badugu, lehenik eta behin pentsatu behar dugu feminismoa ez dagoela gizonetzkoen kontra. Eta patriarkatuak berak gizonen eragiten dizkigun zauriei erreparatzea ere komeni da***

» ***Parekidetasunaren inguruan interesa duen oro animatuko nuke foro ireki honetan parte hartzera, baita jarrera kritikoa dutenak ere. Uste dut interesgarria izan daitekeela, errespetuz beti ere, iritzi guztiak entzutea***

eragin dezake, eta hori landu egin behar da, pedagogia egin behar dugu, patriarkatu gizonentzako ere zerbait negatiboa dela ikusaraziz.

Izan ere, teorian gizon gehienak daude parekidetasunaren alde, baina horrek berekin baldin badakar pa-

triarkatuak eman dizkien pribilegioei uko egin beharra, gauzak asko aldatzen dira.

Beharrezkoa da, bai, gizarte eredu honek gizonetzko eman dizkigun pribilegioen inguruko gogoeta egitea eta ezbaian jartzea, baina hori baino inportanteagoa da, nire

ustez, gizonok boterearekin dugun harremanari buruzko gogoeta egitea, izan ere, maiz boterekerian erortzen baikara, eta niretzat hor dago benetan guk egin beharreko lana, zeren boterea erabil genezake gauzak aldatzeko, eta ez beste batzuen gainetik jartzeko.

Nondik hasi behar luke, zein konpromiso hartu behar lituzke, parekidetasunerantz urratsak ematen hasi nahi duen gizonetzkoak?

Nik uste dut lehenik eta behin dela pentsatzea feminismoa ez dagoela gizonetzkoen aurka; feminismoa datorrela gizonen ere on egitera.

Beharrezkoa da, halaber, aldeketarako prestutasuna agertzea, askotan aldaketak ez direlako errazak, eta minkorrak ere izan daitezke elako.

Horrez gain, uste dut garrantzitsua dela feminismoari entzutea, gizontasun ereduaren inguruko lanketa egiten duten beste gizon batzuei entzutea, gure portaerak, gure harremanetako dinamikak kuestionatzea, ea horiek diren gura ditugunak, eta galdetzea baita ere gure ingurukoaren artean ea nola hautematen edo ikusten gaituzten.


Bestalde, patriarkatuak berak gizonen eragiten dizkigun zauriei erreparatzea ere beharrezkoa da: dela harreman sakonak sortzeko zailtasuna, dela emozioak identifikatzeko zailtasuna... Guzti horri ere begiratu beharko genioke.

Nor animatuko zenuke foroan parte hartzera?

Parekidetasunaren inguruan kezka, ezinegona edo interesa duen gizon oro. Eta baita jarrera kritikoa dutenak ere. Uste dut interesgarria izan daitekeela, errespetuz beti ere, gai hauen inguruko ikuspuntu kritikoa duten gizonen iritziak entzun eta kontrastatzea ere. ■

'IZAN GOGO GARA'

Ezkutatu diguten historia ezagutzeko jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Nabarralde taldeak



» *Idoia Arrietaren eskutik ezagutuko dugu historia nola ezkutatu diguten. Nola, indarrez konkistatuak izan garenean, gure borondatez atxiki garela sinetsarazi diguten*

» *Zumeltzegi dorreko Gebara leinuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango dugu Iñigo Larramendi historialariaren eskutik*

Bere historia ezagutzen ez duen herria ezin izango da bere etorkizunaren jabe izan. Gure herriaren memoria kolektiboa berreskuratu eta ezagutzera emateak berebiziko garrantzia du, eta horretan dihardu Nabarralde Fundazioak. Eta testuinguru horretan ulertu behar ditugu Nabarralderen Oñatiko talde sustatzaileak urtero —aurtengoak seigarrenak dira— antolatzen dituen jardunaldiak.

Ondoko orrian ikus daitekeen moduan, egitarau bete eta interesgarria prestatu dute aurten ere, Euskal Herriko historian adituak diren goi mailako hizlariekin: Idoia Arrieta, Eneko Bidegain eta Iñigo Larramendi. Azken honek urte askotan Oñatin nagusi izan zen Gebara leinuaren nondik norakoak azalduko ditu.

Hitzaldiez gain, 14 panelen bidez Euskal Herriko historia laburbiltzen duen 'Habitat' erakusketa egongo da ikusgai. Beñi Agirrek egingo duen bisita gidatura joatea gomendatzen dizuegu, oso modu didaktikoan azaltzen baititu gure herriaren historiako mugarri nagusiak. Bestalde, irteera bat ere antolatu dute Gazteluaitz tontorrera. Gogoratu, Nafarroako Antso Nagusiaren erregealdian (1004-1035) erabili zen gaztelu baten aztarnak aurkitu dituztela bertan.



IÑAKI
IDIGORAS
Nabarralde



"Oraina ulertu eta etorkizuna proiektatzeko, ongi etorri iraganera"

Nazio baten nortasuna batez ere bi ezaugarrik finkatzen dute: hizkuntzak eta memoriak. Elkarrekin nola bizi garen, eta elkarrekin zertzuk bizi izan ditugun. Horregatik, konkistatuak izan ondoren (1200, 1512, 1620) Frantziak zein Espainiak bi arlo horietan izan dituzte jopuntuan gure asimilazioa gauzatzeko, guk geure nortasuna alboratu eta beraiena onartzeko.

Idoia Arrietaren eskutik ezagutuko dugu Historia nola ezkutatu diguten. Nola, indarrez konkistatuak izan garenean, gure borondatez beraiengana atxiki garela kontatu diguten.

Zorionez, bada gure Historia berreskuratzen ibili denik, **Kepa Anabitarte** kasu; besteren artean, Nabarralderen sortzaile.

Eneko Bidegainen eskutik bere ibilbidea ezagutu, eta XX. mendeko abertzaletasun ahaztuaren berri izango dugu.

Gure herriari dago-kionez, Zumeltzegi dorreko **Gebara** leinuaren nondik norakoak azalduko dizkigu **Iñigo Larramendi**dik.

Ohitura bilakatu denez, **Habitat** izeneko erakusketa paratuko dugu aurten ere, gure lurretan gizakiak izan duen bilakaera politiko-instituzionala erakusten duena: aurrekariak erro-matarren garaitik, estatuaren sorrera, gorpuztea, eta zatika-zatikako bortxazko desegitea. Publiko-koendako zein DBH4ko ikasleendako bisita gidatuak izango ditugu, **Beñi Agirre**ren eskutik.

> EGITARAUA

MARTXOAK 24 - Bisita gidatua
'HABITAT: Euskaldunon historia mapen bitartez'
erakusketara bisita gidatua BEÑI AGIRREren eskutik. Kultur etxeko erakusketa gelan, 18:30etan



MARTXOAK 25 / Hitzaldia
'Ezkutatu diguten historia'
Hizlaria: IDOIA ARRIETA
Kultur etxeko zine aretoan, 19:00



MARTXOAK 30 / Ibilaldia
GAZTELUAITZERA IBILALDIA
Arantzazuko Sindika ostatu aurretik irten eta Bellotzatik bueltatu. Goizeko 9:00etan


APIRILAK 1 / Hitzaldia
'Kepa Anabitarte: XX. mendeko abertzaletasun ahaztua'
Hizlaria: ENEKO BIDE GAIN
Kultur etxeko zine aretoan



APIRILAK 2 / Bideo laburra eta hitzaldia
'GEBARA: Oñatiko jaunen leinuaren 1000 urteko historia'
Hizlaria: IÑIGO LARRAMENDI
Kultur etxeko zine aretoan, 19:00



MARTXOAK 24 - APIRILAK 4 / Erakusketa
'HABITAT: Euskaldunon historia mapen bitartez'
Erakusketa irekia. Kultur etxeko erakusketa gelan.
Astelehenetik igandera 18:00-20:00



◀ **BISITA GIDATUA**
Martxoaren 24an (18:30) Beñi Agirrek gidatutako bisita egingo da 'Habitat' erakusketara. Ez galdu aukera.

Euskal Herriaren historia hamalau horma-iruditan

'Habitat. Ezkutatu diguten historia' izeneko erakusketa ikusteko aukera egongo da kultur etxean, martxoaren 24tik apirilaren 4ra. Hamalau panel edo horma-irudiz osatuta dago, eta bertan laburbiltzen da modu grafiko eta argian gure herriaren historian mugarri izan diren gertaerak: aurrekariak erromatarren garaitik, estatuaren sorrera, gorpuztea, eta zatikatutako bortxazko desegitea.

Erakusketak dirauen bitartean DBH-4ko ikasleei zuzenduriko bisita gidatuak egingo dira, baina martxoaren 24an (18:30), publiko orokorrari zuzendutako bisita gidatua egongo da, Nabarralde taldeko Beñi Agirrearen eskutik. Aukera paregabea gure herriaren historian gakoak izan diren gertaerak modu erraz eta argian ezagutu eta ulertzeko ezagutzeko.

BATXILLERGOA ELKAR HEZI

HEZKUNTZA HIRUELEDUNA
TEKNOLOGIA
GATAZKEN PREBENTZIOA
KUDEAKETA
ANIZTASUNA
HERRIKO AUTONOMIA
PERTSONALA
EBIDENTZIA
IDENTIFIKOAK
ELKARTRUKETA
ETZA
ATZERRIAN

idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72 / 688 621 195
www.elkarhezi.eus

HEZKUNTZA HIRUELEDUNA
MINDFULNES
KONFIDAZ
ORIENT
ETORRIK
ELAGU
ASTA
AKADEMIKOA

CHAT CONVERSATION:

TAIR M

eneko

Nagoo ze xauñ? Erabaki don batxilergoa nuri egin?

Bai zes... horretan jant be ez nauk egin. Hik bai ala!

Nik ez fikonon dudarik, Elkar Hezin.

Joe, hain seguru? Ta hori?

Ba hasteko girusatik: talde txikiak ditun, irakaslekin tratua oso gertekua eta koefiantzazkua don, orduz kanpoko indargarriak emulen xonai... Hola, gusturau lan egin eta samurrau ikasten don.

Ya... ta emultzak?

Brutalaki! Baxi egiten hasten ditunan iza-iza 9000ak lortzen xon bihar dauen ikasketak egitteko notia. Hik Fisio egitteko danan bihara eukiko don...

Elkar Hezik pagau egiten dosk propaganda egittagatik ala!



JULEN AGIRRE LIZARRALDE / Euskaraldiaren dinamizatzailea Oñatin

"Euskaraldian parte hartzeko grina ikusten dut herrian"

Maiatzaren 15etik 25era egingo da aurten Euskaraldia, euskararen erabilera areagotzea helburu duen ariketa kolektiboa. **Martxoaren 15ean** irekiko da izen-ematea.

Bi hilabete baino ez dira geratzen **Euskaraldia** hasteko, eta motorrak berotzeari ekiteko ordua da. Izan ere, eta horixe da aurtengo Euskaldiaren berrietasun nagusia, udaberrian (maiatzaren 15etik 25era) egingo dela —aurreko hiru edizioak udazkenean izan ziren—. "Euskaraldia kalean eta elkarrekin egiteko ariketa soziala da eta, beraz, udaberrian izanik eraginkorragoa izango delakoan gaude, urte sasoi honetan kale-giroa handiagoa izaten delako eta, ondorioz, ariketa soziala egiteko aukerak biderkatu egiten direlako", azaldu digu Julen Agirrek, Euskaraldiaren Oñatiko dinamizatzaileak.

Gainerakoan, rol biko ohiko eskemari eutsiko dio aurten ere Euskaraldiak, aurreko edizioetan garbi geratu baita eskema horrek emaitza onak ematen dituela, eta, beraz, izena ematerakoan aukeratu beharko dugu **Ahobizi** ala **Belarriprest** izan nahi dugun. "Rol bat edo bestea aukeratu, euskara gehiago edo gutxiago jakin, euskararen aldeko jarrera aktiboa edukitzea da garrantzitsuena Euskaraldian; inertzia aldatu eta euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egitea da Euskaraldiak proposatzen diguna, eta hizkuntza portaera hori ohiko bihurtzea", azpimarratu du Agirrek.

Oñatin **'Euskaraldia-Hika'**

ariketa egiteko aukera ere egongo da —hau hori egiten dutenek 'H' hizkia eramango dute txapan—, eta entitate gisa (denda, elkarte, enpresa...) parte hartzeko aukera ere badago.

TXAPA PAPPARREAN

Ahobizi ala **Belarriprest** izan, txapa soinean eramatearen garrantzia ere azpimarratu du Agirrek. "Batzuetan lotsa-edo ematen digu jartzeak, baina txapa ezinbesteko tresna da Euskaraldian. Egin kontu, txapak mezu argia helarazten diola aurrean dugunari: 'nirekin egizu euskaraz, lasai!'. Euskaraz hitz egiteko edo entzuteko jarrera erakusten du eta, beraz, fun-

HASIERA EKITALDIA martxoaren 15ean

Martxoaren 15ean irekiko da Euskaraldian norbanako gisa izena emateko epea, eta egun horretarako ekitaldi berezia prestatzen ari da Oñatiko herribatzordea. Eguerdian parte hartuko da, Foruen plazan. Euskaraldiaren aldeko Oñatiko hamaikakoa aurkeztuko da bertan, eta Euskaraldirako **Bulego** taldeak sortu duen abestiaren 'bertsioa' kantatzeko aukera ere egongo da. Eta, jakina, Euskaraldian izena emateko aukera ere zabalduko da bertan.

tsezkoa da Euskaraldiak proposatzen duen ariketa eroso egin ahal izateko".

Oñati herri euskalduna izan arren, Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak direla uste du Agirrek. "Duda barik. Datuek erakusten dute Oñatin ere beheraka goazela erabileran, eta ezin gara erlaxatu. Euskaraldia bezalako ekimenek kontzientzia linguistikoa pizten dute, euskara ulertzen duten pertsonak prestigioatzen eta motibatzen laguntzen dute, eta euskaldun aktiboak ahaztuzten ditu. Nire kasu partikularrean, adibidez, esan dezaket Euskaraldiak bultzatuta hartu nuela lehen hitza beti euskaraz esateko ohitura".

Gainera, epaitegietatik eta beste esparru batzuetatik euskara jasaten ari den erasoei erantzuteko modua ere izan daiteke Euskaraldian parte hartzea; euskaraz bizi nahi dugun hainbat eta hainbat herritar gaudela, eta euskarari zor zaion errespetua exijitzen dugula erakusteko. Beraz, modu batera edo bestera, Agirrek animatu egin nahi ditut herritarrak Euskaraldian parte hartzera.



300 karta-joko argitaratu dira, momentuz. Karta-jokoetako batzuk herriko ikastetxeetan banatuko dira, ikasleek erabil ditzaten, eta besteak salgai ipiniko dituzte, Txokolateixan eta Turismo Bulegoan, 10 euroren truke. Jokatzeko bi modu daude: koloreka eta zenbakika. Karta bakoitzean esamoldearen azalpena eta adibideak datoz, eta baita esamoldearen esanahiari buruzko galdera-erantzunak ere. "Karta lortzeko, ezinbestekoa da zuzen erantzutea, baina gero posible da karta beste norbaitek kentzea ere! Karta gehien lortzen dituenak irabaziko du".

Oñatiko esamoldeen karta-jokoa argitaratu dute

Badihardugu elkarteak prestatu du materiala, herriko hizkera modu jostagarrian lantzeko

Oñatiko Udalak herriko esamoldeen karta-jokoa plazaratu du, ikastetxeetan zein etxetan oñatiera modu jostagarrian lantzeko aukera ematen duena. Badihardugu euskara elkarteko Idoia Etxeberria arduratu da karta-jokoaren edukia prestatzeaz eta Mirari Sagarzazu marrazkilaria, berriz, irudiak sortzeaz eta karten diseinuaz.

42 karta dira guztira, erakarriak eta koloretsuak: 42 esamolde. Etxeberriaren arabera, "aukeraketa txiki bat da, oñatieraz esamolde eta berba berezi askoz gehiago daudelako. Daukagun aberastasunaz jabetzeko balio izatea nahiko genuke, eta garrantzitsuena: bertako esamoldeak erabiltzen jarraitzea".

Idea da, mahaiaren bueltan elkartzea, familia giroan, herriko esamoldeen transmisioa egiteko. Karta-jokoa herritar guztiei begira sortu da, belaunaldien arteko transmisioan eragiteko. "Karta-jokoaren aitzakian, sarritan beste hainbat esamolde ere



ikasiko dituzte gaztetxoek, etxe bakoitzean erabiltzen direnak", dio Etxeberriak. Mobilari begira bizi garen garai honetan, familian jokatzeko karta aproposak direla azaldu du: "Herriko euskararen aberastasuna ezagutzeko aukera ematen dute, momentu atsegina batzuk pasatzeko aukera emateaz gainera".

◀ Karta-joko batzuk herriko ikastetxeetan banatuko dira eta besteak salgai ipiniko dituzte Txokolateixan eta Turismo Bulegoan, 10 euroren truke.

◀ Idioia Etxeberria arduratu da karta-jokoaren edukia prestatzeaz, eta Mirari Sagarzazu irudiak sortzeaz eta karten diseinuaz

» **Helburua oñatiera biziberritzea da, gure hizkera hobeto ezagutzea, balioan jartzea eta erabiltzea**

IKASTETXEETAN OÑATIERA LANTZEKO 30 FITXA

Karta-jokoaren osagarri, ikastetxeetan oñatiera lantzeko 30 fitxa ere prestatu ditu Etxeberriak, jadanik erabiltzen hasi direnak. "Irakasleek hala eskatuta, fitxak 15-20 minutuan lantzeko modukoak dira. Oso harrera ona ari dira izaten".

Fitxak editagarriak dira, ikasleek ordenagailuz lantzeko modukoak, baina paperean lantzeko aukera ere ematen dute. Fitxa bakoitzak hiru atal ditu: *Asmatu*, *Aberastu* eta *Zuzendu*. "Irakasleak kezkatuta zeuden oñatiera gero eta okerrago erabiltzen delako eta ohiko akatsak zuzentzen ere saiatu gara". Helburua oñatiera biziberritzea da, gure hizkera hobeto ezagutzea, balioan jartzea eta erabiltzea.

Fitxak eta karta-jokoa prestatzeko garaian, oñatieraren gainean egin diren lanetan oinarritu da Etxeberria, aurretik lan handia egin baita herriko hizkera jasotzeko. Gainera, Roberto Altunaren laguntza eta hainbat adituren aholkularitza izan du, Jerardo Elortza tarteko.

Oñatiko Udalak eta Badihardugu elkarteak urteak daramatzate Oñatiko ahozko ondarea jaso eta zabaltzen. Hainbat lan ildo jorratu dituzte elkarrekin: azken urteetan hitanoa —berreziki noka— biziberritzeko lanetan ere ari dira, Ingo Xonau! herri ekimenaren bitartez.



Kiroldegia, jasangarriagoa

Urtean 29.000 euro aurreztuko dira kiroldegiko argindarraren fakturan

Amaitu dira kiroldegiko kan-txa berdeko teilatuan plaka fotoboltaikoak instalatzeko lanak. Autokontsumorako 272 eguzki plaka ipini dituzte bertan —125kw.-ko potentzia guztira—, eta horien bidez sortuko den argindarrari esker, urtean 36,87 tona CO2 gutxiago isuriko dira atmosferara. Ingurumenaren alde egiteaz gain, gastuak murriztea ere ahalbidetuko dute eguzki plakek, kiroldegiko urteko argindar fakturan 29.000 euro aurrezteko aurreikusen baita. Horrenbestez, instalakuntza fotoboltaikoan egindako inbertsioa (82.000 €, BEZ barne) hiru urteren buruan amortizatzea espero da.



Led argiak ipini dituzte kiroldegiko kantxa urdinean eta pilotalekuan

Energia kontsumoa murriztu eta argiztapena hobetzeko xedez, kiroldegiko kantxa urdineko eta pilotalekuko argiteria berritu du Udalak, aurretik zeuden fluoreszente eta halogenozko argien ordez LED teknologiadun lanparak jarri. Potentzia handiagoa eta kontsumo txikiagoa dute lanpara berriek eta, gainera, intentsitatea modulatu eta, argi guztiak piztuta eduki beharrean, sektoreka ixuketako aukera ematen du instalazio berriak. Cuadra elektrizitate enpresak egindatu hornikuntza eta instalazio lanak 109.349 eurotan.



Eltzia eraikinean hainbat hobekuntza lan egingo ditu Udalak

Zehazki, igogailua eta bi komun berri egokituko ditu. Lehendik ere badago igogailu bat Musika Eltzarako sarreran, baina eraikineko sarrera nagusiaren inguruan ez dago halakorik. Horregatik, taberna ondoko sarreran 4. solairuraino igoko den igogailua jartzea erabaki du Udalak. Horrez gain, 3. solairuan bi komun berri ere egokituko dira, areto nagusiaren aldamenean. Komunitako bat irisgarria izango da. Bestalde, erdi-sotoan dauden biltegietan hezetasunarekin sortu ohi diren arazoei konponbidea emateko aireztapen sistema jartzea erabaki da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI

Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**


CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



Estalkia egokitzeko lanak hastear

Datozen egunetan hasiko dira kiroldegi aurrealdeko jolaslekuan aterpea egokitzeko lanak. Goiko irudietan ikusten den moduan, estalki arina egokituko da, lurpeko parkineko sarrerari atxikita. Egitura zurruna izango duen arren, estalkiak argia pasatzen utziko du eta, modu horretan, egoteko leku atsegina eta eroso egokitzea da helburua, euritik nahiz eguzki erretik babesteko. Aterpearen azpian jarleku jarraia egokituko da, goiko irudiak erakusten duen moduan. Iturri bat ere jarriko da, San Juan kaleko 5 zenbakiaren atzealdean, gutxi gora behera. Azken Aurrekontu Parte-Hartzaileetan herritarrek aukeraturako 9 proposamenetako bat izan zen hau, botoen %32,80rekin. *Biark Studio* arkitektura bulegoak egin du estalpearen diseinua eta *Frix* eraikuntza enpresak egingo du aterpe arina egokitzeko lanak 35.882 (BEZ kanpo) eurotan.



Aitzgain inguruko larreak xehatzen traktorearekin

Larren egoera hobetzeko inbertsioak egin dira aurten ere

Mendi publikoetako larreen egoera hobetu eta abeltzainei beren lanean laguntzea helburu duen **Goilarre** programaren baitan hainbat lan egin ditu udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eta Oñatiko abeltzainen iritzia haintzat hartuz, beti ere: ura garraiatzea, larreen xehaketak, paso kanadiarren egokitzapenak, eta eskortak nahiz ganadua harrapatzeko lekuak prestatzea izan dira, besteak beste egindako lanak, ia 80.000 euroko inbertsioarekin (53.070€ aldundiak eta 26.535€ udalak). Oñatiko herri-mendietan (Aloña, Aitzgain, Artia) 101 abeltzainek larreratzen dute ganadua: 2.741 ardi, 526 behor, 135 behi, eta 20 ahuntz, azken datuen arabera.



Paso kanadiarra Lizartza barranean eta Mallako harrapalekua

Udako kirol kanpaina begirale aritzeko deialdia egin du Udalak

Udal kirol zerbitzuak antolatuta, ekainaren 23tik uztailaren 18ra antolatuko den udako Kirol Kanpaina begirale izateko oinarriak onartu ditu udalak (www.oñati.eus/tramiteak/lan-eskaintza/kirol-begiraleak). Izen-ematea martxoaren 19tik 26ra egin behar da.

Bizikletentzako aparkalekua Usakora bidean



Goiko irudietan ikusten den moduan, bizikletentzako aparkaleku berria egokitu du udalak Urrutxu aldetik Usakorantz jaisten den bidezidorraren hasieran. Udal brigadak egin ditu aparkalekua prestatzeko lanak eta 35 bat bizikletentzako tokia da bertan. Modu horretan, errepide bazterrean modu desegokian pilatu ohi diren bizikletek sortu ohi duten arazoa konpondu nahi da.



Bigarren eskuko azoka egingo da martxoaren 15ean

Herritar talde baten ekime-
nez, Bigarren Eskuko Azoka
egingo da martxoaren 15ean,
herriko plazan. Etxean albora
utzita ditugun arropa, jostailu,
liburu, altzari eta bestelako
tresna edo gailuei bigarren
aukera ematea da helburua.
Birziklapena eta berrerabilera
sustatzea, azken batean.

Edozeinek parte har de-
zaake azokan, aurrez helbide
honetara idatzita: **bigarre.
azoka2023@gmail.com**. An-
tolatzaileek eramango dituzte
mahaiak, eta postua jartzen
duenaren ardura bakarra
izango da mahaia ipini eta
bukaeran jasotzea.

Eider Urzelaik ordezkatu du Euskadi estatu mailako filosofia olinpiadetan

'Zaintza' izan da Euskadiko Filosofia Olinpiadetako VII. deialdian jorratu den gaia, eta DBH nahiz Batxilergoko ikastetxe ezberdinetatik aurkeztutako 534 lanen artean Elkar Heziko hiru ikasle sailkatu dira finalera: Ane Txintxurreta, 'Marrazketa filosofikoa' sailean, Irati Apaolaza 'Iruzkin filosofikoa'n, eta Eider Urzelai 'Argazki filosofikoa'n. Eta azken hau hautatu dute, hain zuzen, martxoaren 28-29an Mallorkan egingo den estatu mailako finalean Euskadi ordezkatzeko 'Eta nik, txoria nuen zaintzen?' lanarekin. Zaintzaren izenean izkutatzen diren harreman toxikoetatik askatzeko deia egiten du Eiderrek bere lanean.



Amaitu dituzte lokomotora zaharberitzeko lanak

Amaitu dira Vasco-Navarro trenaren lurren-lokomotora zaharberitzeko lanak. Iazko urte amaieran apurtutako txapak konpondu edo ordezkatu aitzuzten eta pasa den astean egin ziren margotze lanak, jatorrizko kolore beltz eta gorriak mantenduz. Juanjo Olaizola adituaren laguntza teknikoarekin egin dira zaharberitze lanak, eta Foru Aldundiaren baimenarekin, babes bereziko kultura ondare izendapena baitu trenak. Guztira, 30.000 euroko aurrekontua izan dute berritzeko lanek.

Koben Eguna martxoaren 15-16an

Euskal Herriko zortzi koba ezagunenak (Arrikutz, Ekainberri, Isturitz, Mendukilo, Pozalagua, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi) biltzen dituen **Lurpea** elkarteak Koben Eguna ospatuko du martxoaren 15-16an. Sarrerak erdi prezioan egoteaz gain, hainbat sari zozkatuko dituzte egun horietako bisitarien artean. **Arrikutz-Oñatiko** kobari dagokionez, **martxoaren 15ean** 'Espeleotxiki' (10:30 / gazteleraz) eta 'Ilunpeko altxorrak' (15:00 / euskaraz) bisita bereziak egingo dituzte, eta **martxoaren 16an**, erdi prezioan bisitatu ahal izango da haitzuloa. Informazio osoa: www.lurpea.eus.



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Oñabike

oñabike.com
Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



Ekintzaileei zuzendutako prestakuntza tailerrak antolatu ditu Mankomunitateak

Tailerrak doan dira, baina izena eman behar da

Enpresa proiekturen bat abian jartzeko asmoa duten ekintzaileei zuzendutako 'Ekin Debagoiengan' tailer zikloa antolatu du Mankomunitateak. Tailer guztiak doainik dira, baina beharrezkoa da aurrez izena ematea. Programatu diren 8 tailerrak edo banaka egiteko aukera dago. Plazak mugatuak dira eta gutxienerako taldea osatu beharko da tailerrak aurrera ateratzeko. Informazio gehiago: 943 793 090 / rgarcia@debagoiena.eus

» TAILERRAK

- **MARTXOAK 12 (9:30-13:30)**
Idea aztertzea: negozio plana
Análisis de la idea: plan de negocio
- **MARTXOAK 14 (9:30-13:30)**
Abian jartzeko izapideak
Trámites de puesta en marcha
- **MARTXOAK 17 (9:30-13:30)**
Negozio txikien traspasoak
Traspasos de pequeños negocios
- **MARTXOAK 19 (9:30-13:30)**
Oinarrizko kudeaketa
Gestión básica
- **MARTXOAK 21 (9:30-12:30)**
CANVA: ikus-identitatea
Identidad visual
(*INPLANTALARIAK programa-ordenagailuz)
- **MARTXOAK 24 (9:30-13:30)**
Oinarrizko finantzak
Finanzas básicas
- **MARTXOAK 26 (9:30-14:30)**
Betebehar fiskalak
Obligaciones fiscales
- **MARTXOAK 28 (9:30-12:30)**
FakturaBAI
(*INPLANTALARIAK programa-ordenagailuz)



Kualifikazioa duten langabetuak laneratzeko programa jarri du abian Mankomunitateak

Langabezian dauden pertsona kualifikatuei (unibertsitateko titulazioa edo Lanbide Heziketako erdi- edo goi-mailako zikloa), adina edozein delarik, zuzendutako programa da **HAZILAN+**. 80 orduko formazioa jasoko dute partaideek eta praktika bekadunak ere egingo dituzte. **Martxoaren 24an** hasiko da programa eta hilaren **14ra** arte dago zabalik izena emateko epea. (debagoiena.eus/garapen-agentzia edo [hazi-lanplus.garapen.net](http://hazilanplus.garapen.net))

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrial
- | Automatizazio eta Robotika Industrial

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

mondragon.edu/lanbideheziketa

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

ATE IREKIAK

11:00etan



**Apirilak 5
Maiatzak 10**

664298683 // 664298704



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna eta Gaztelekua (Arazerixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Neure buruari:

Ispiluan ikusi ezin dudan hori ikusi nahian, konturatu gabe nire buruak sortzen du parean daukadanaren irudia, eta begiek buruari sinetsi. Gaur ez naiz atzo nintzen modukoa, oso desberdin ikusten dut neure burua. Ematen du 2000 kilo hartu ditudala, badirudi haurdun nagoela egun batetik bestera.

Baina gaurkoan, lehen ez bezala, badakit ikusten dudana interpretazio bat besterik ez dela, garunak nire aldaratearen arabera gauza bat edo beste ikusarazten didala. Emozioak dira interpretatzen dituen eta ez errealtatea. Gaur, badakit ikusten dudana ez dela ispiluak islatzen duena, nire barruan dagoen iluntasunak sinetsarazi nahi didana baizik. Eta ez nago larri hori horrela izateagatik, badakidalako prozesuaren parte dela.

Kontzientzia sortu da, pausu garrantzitsua dela deritzot, eta ez nago ero, pixka bat noraezean nire burua aurkitu nahian baino ez. Eta horregatik nago lasai, aurrerapausuak ikusten ditudalako eta sentazio desatsegin hau pasatuko dela badakidalako, hori lortzeko borrokan nabilelako, eta ez naizelako geldituko hori lortu arte.

Agian bihar, ezin izango dut jasan ikusten dudanak eragiten didan mina, baina ziur nago nire barnetik arrosa bat irtengo dela, sustraiak errotuz, gogoraziz baietz, gai naizela eta momentu honetan beste batzuetan baino sentikorrago banago ere, ez dela munduaren amaiera, bizimodu berri bat lortzeko bidean eman beharreko pausua dela aitzitik.

Zorua naizela pentsatzen duena dago ero, jada ez daukat beldurrik naizena izateko, edo saiatzen naiz izaten behintzat. Badakit iritsiko dela egun bat, non, ispiluan ikusten dudana gustuko izango dudana, eta era berean, ispiluan ikusten dudana hori eta ispilu parean dagoena bat etorriko diren, ez dut zalantzarik. Ametsak egi bihurtzea batzuetan ez da lan erraza ezta azkarra ere. Baina norbaitek esan zuen ametsak egi bihurtzen direla, eta hein batean ados nago; norberak nahi izanez gero eta norberaren esku dagoen guztia eginez gero, orduan bai, orduan garai bateko ametsak hori izango dira, ametsak besterik ez.

Bide onetik zoaz, ez etsi, eutsi maitia. Mereziko du borrokatzea, amorerik ez ematea. "Eta horrela bizitzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera. Atsedetik hartu gabe; lana eginaz goaz aurrera..."

Zugan sinesten dudalako, gauero irakurriko nauzulakoan, Guztiaren ginetik egon beharko lukeen zeure burua.



Berezia da zenbaki honetako gutunen atalera ekarri dugun idatzia.

Lide Mantxola Akizu

(25 urte) oñatiarrarena da. Bergarako Jardun Euskara Elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen lehaiketako 'Gazte Saria'ren irabazlea. Berea da jarraian datorren sarrerakoa ere.

» Ez dut beti jakin nire barruan gertatzen ari zena ulertzen edo interpretatzen. Gaur, esan dezaket hobeto ulertzen dudala neure burua, nondik natorren eta nora joan nahi dudana. Elikadura nahasmendua diagnostikatu zidaten 12 urte nituela, eta depresioa horrekin batera. Ezin dezaket esan gaintitu ditudanik baina, ausartzen naiz esatera hauek guztiak prozesuak direla, eta prozesuak diren heinean, hobetzerik badagoela bide horretan zehar hori ikusi ez arren sarri. Ikasketa bat da, non, emozioen eta sentimenduen kudeaketak garrantzia handia duen. Eskerrak ematea gustatuko litzaidake, gutun hau oso kuttuna delako niretzat eta gai honi ahotza jartzea eta identifikatuta sentitu daitekeen orori nolabait bakarrik ez daudela gogora ekartzea garrantzitsua iruditzen zaidalako.



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

» OHAR ETA DEIALDIAK «



Udal Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Ikasleen kostuak arindu eta, horrenbestez, euskaltegiaren izen-emate kanpaina bultzatzeko, Udalak matrikula baten zozketa egin ohi du ikasturte osoko matrikula egin dutenen artean. 2024-2025eko sariduna **C1 mailako Josu Cambeses Alvarez** izan da. Argazkian, sariduna bera eta Udal Euskaltegiko zuzendari Ernesto Murgiondo saria ematen.



Omenaldia Elene Guridiri

Realarekin F ligan diharduen jokalaria oñatiarrak Aloña Mendiren omenaldia jaso zuen otsailaren 9an, Zarautzen aurkako partidua-
ren atarian. Klubak kuadro bat oparitu zion, Realean darabilen zenbakidun kamiseta batekin. Zorioneko dago, gainera, oñatiarra, 2027ra arte berri-
tu baitu kontratua Realeko lehen taldearekin.

Gure Eskuk-k ekainaren 7rako deitu duen mobilizazio nazionala aurkezteko ekitaldi irekia egingo da Oñatin, martxoaren 18an



Hamabi urte igaro dira GURE ESKU erabakitzearen aldeko mugimendu herritarra abian jarri zela. Orduz geroztik mobilizazio erraldoiak eta bestelako hamaika ekintza antolatu izan dira.

Garai bereziak bizitzen gauden honetan, berriz elkartzea erabaki du GURE ESKUK. Ekainaren 7an Bilbo betetzea izango da erronka nagusia, eta horretarako herri eta eskualde desberdinetan herri batzordeak aktibatzen hasi dira. Oñatin **martxoaren 18an**, kultur etxean (18:30) egingo da aurkezpen irekia. Animatu eta gerturatu!

'Ekialde Ertaina eta Israelgo palestinarren gatazka'

Hitzaldia, solasaldia eta persiar poesia errezitaldia



Hitzaldia Ekialde Ertaina eta Israelgo palestinarren gatazka

Ekitaldiaren aurkezpena

Ricardo Guisado-Balanzategui, Politologoa

Parte-hartzailea

Angeles Espinosa

Kazetaria. EL PAÍS egunkariko korrespondentsal ohia Ekialde Hurbilean

Solasaldia

Ander Balanzategi, Kazetaria

Maite Leñizbarrutia

Persiar poesia errezitaldi laburra

Shirin Salehi, Artista Iraniarra, persieraz

Carmen Fernández, ikaslea, euskaraz

Gonzalo Sánchez-Terán, Poeta, gaztelaniaz

Musika: Nadala Manso, Planista

Asteazkena, martxoak 26

18:30ean

Kultur Etxea

Santa Marina plaza

Oñati



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS





Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> UDALEKU IREKIAK 2025 <<

Aurtengo Oñatiko udaleku irekiak ate joka dabilta, eta nola ez, Udalekuetako helburu nagusia udalekuak haurren gozamen iturri izatea da beste urte batez.

Ekainaren 23an emango zaie hasiera udalekuei eta **Uztailaren 18an** itxiko dituzte ateak. Aste hauetan, **HH3-LH6** bitarteko haurrek Oñatiko kaleak jolas eta irriz beteko dituzte herriko parke eta txoko guztiei bizi eta alaitasuna emanaz. lazko antolakuntza jarraituz, oraingoan ere, **10.00-13.00** bitarteko iraupena izango dute udalekuek.

Horrez gain, kontziliazio arazoak dituzten familiei zuzendutako **zaintza zerbitzua** antolatuko da, 8.15-10.00 bitartean.

Izen ematea, Martxoaren 17an goizeko 9.00 zabaldu eta Martxoaren 28an arratsaldeko 19.00tan itxiko da. Izen emate prozesua online izango da eta www.onati.eus web orriaren bitartez egin beharko da. Zehaztapenak esku orritan, Txaloka ludotekako instagramean zein Ludotekako zerbitzu berezian egongo dira eskuragarri. Izan ere, aste horietan, Txakola ludotekak herritarren galdera eta zalantzak erantzuteko zerbitzu berezi bat emango du, modu presentzian edo telefonoz: Martxoak 17-18-27-28 goizeko 9.00etatik 12etara eta Martxoak 19-26, 14.30-16.45 bitartean. Ludotekako ohiko zerbitzua ematen den ordutegian berriz, ez dira udalekuetako galderarik erantzungo.

>> UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALEEN KONTRATAZIOA <<

IZENA EMATEKO EPEA: **Martxoaren 17tik 28era**. LEKUA: Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30.

HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK: **Ekainaren 7 eta 14an** izango dira. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea.

BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.



Udaleku irekiak



Arte udalekuak

>> ARTE UDALEKUAK 2025 <<

Aurten ere, hamabigarrenez, Arte udalekuak antolatuko ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek **marrazkigintzan, eskulturaren, margogintzan, antzerkigintzan** eta abar aritzeko aukera izango dute
NOIZ: **Ekainaren 23tik uztailaren 18ra**. ORDUTEGIA: **10:00 – 13:00**. ADINA: **L.H.4tik DBH3ra**. TOKIA: Gaztelekuan.
HAURREN IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 17tik 28ra. IZENA EMATEKO MODUA: Online, www.onati.eus helbidean.
Plaza mugatuak, zozketa egin beharko balitz kanporatuek Udaleku irekietan izena emateko aukera izango dute.

>> ARTE UDALEKUETAKO BEGIRALEEN KONTRATAZIOA <<

IZENA EMATEKO EPEA: **Martxoaren 17tik 28era**. LEKUA: Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean. HAZko ordutegia: 07.30-15.30. BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Oñatiko Udaletxean edota www.onati.eus.



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> AISIALDI INKLUSIBOA <<

OÑATIKO UDALAK AISIALDI INKLUSIBORAKO PROGRAMA BERRI BAT BULTZATUKO DU ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAT

Oñatiko Udala, Haur eta Gazteria eta Gizarte Zerbitzuen sailen artean izandako elkarlanean, aisialdiaren eta denbora librearen beharrak asetzeko programa berritzaile bat garatzen ari da, aniztasun funtzionala duten haur, nerabe eta gazteei zuzendua. Proiektu honen helburua gure herritar guztiei, eta batez ere haur, nerabe zein gazteei berdintasun-baldintzetan sozializatzeko eta aisialdian parte hartzeko aukera eskaintzea da.

PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa hiru helburu nagusitan egituratzen da:

1. **Harremanak eta sozializazioa sustatzea:** Herritar orok denbora libreaz oztoporik gabe gozatzeko espazioak eta aukerak sortzea.
2. **Gizarteratzea bultzatzea:** Oñatiko haur, nerabe eta gazte guztiak hainbat jardueretan parte hartzera bultzatzea, komunitatean elkarlan eraginkorra sustatuz.
3. **Familiei laguntza eskaintzea:** Gurasoen eta tutoreen zaintza-lana arintzeko baliabide bat eskaintzea.

BALIABIDEAK ETA JARDUERAK

Programa hau martxan jartzeko, Oñatiko Udalak Haur eta Gazteria arloko udal-baliabide guztiak jarriko ditu eskura. Zentzu honetan, **Gaztelekua** izango da proiektuaren ardatz nagusia, parte-hartzaileentzako topagune eta erreferentzia toki gisa baliatuko baita. Horrez gain, beste espazio eta ekipamendu garrantzitsu batzuk ere erabili ahalko dira, hala nola **Ludoteka**, **Udalekuak**, baita herriko kirol eta kultura instalazioak ere.

Programan **hezitzaile espezializatuak** lanean jardungo dute, erabiltzaileen behar espezifikoetara egokitutako jarduerak diseinatu eta moldatzeko; parte-hartzaileen garapen pertsonal eta sozialerako ingurune seguru, estimulagarri eta egokiaren bermea bultzatuz.

PARTE HARTZEKO DEIA

Ekimen honekin, Oñatiko Udalak ez die soilik familiei eta aniztasun funtzionala duten haur, nerabe eta gazteei kalitatezko baliabide bat eskaini nahi, baizik eta komunitatea inklusioaren eta elkarbizitzaren garrantziaz sentsibilizatzea.

Horregatik, programa honetan parte hartzeko interesa duen edonor animatzen dugu gure zerbitzuetara hurbiltzera informazio gehiago eskuratzera. Bai Haur eta Gazteria sailaren bai Gizarte Zerbitzuen ateak irekita ditugu edozein zalantza argitzeko. Halaber, informazioa jaso daiteke **645005672 (Haur eta Gazteria Teknikaria)** telefono zenbakira deituta.


Oñatiko Udalak inklusioarekin eta udalerriko haur, nerabe eta gazte guztien ongizatearekin bere konpromisoa berresten du, guztiontzat bidezkoagoa eta eskuragarriagoa den komunitatea sustatuz.

Harry Potteren fantasia Oñatiko gimnasten eskutik

Musikal erako ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 29an, Harry Potterren istorioan oinarrituta

Azkenen urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere ikuskizun berezia eskainiko dute Aloña Mendiko gimnasia taldekoek. Lehiaketatik haratago, gimnasia erritmikoaz gozatzeko aukera badago, eta hori erakusteko ahalegin berezia egiten ari dira azkenaldian. Duela bi urte, esaterako, kiroldegitik atera eta herriko plazara eraman zituzten beraien koreografia alai eta ikusgarriak, eta iaz, musika bandaren kontzertu batean ere parte hartu zuten. Oñati eta Aretxabaletako nagusien egoitzetan ere aritu izan dira, bertako egoiliarren gozamenerako.

Baina aurten urrats bat haratago eman nahi izan dute eta musikal estiloko ikuskizuna prestatu dute Harry Potter magia-ikasle gaztearen fantasia munduan oinarrituta. Lide Osinagak prestatutako koreografiaren bidez, *Hogwarts* magia eta aztikeria eskolako abenturak irudikatuko dituzte, behar bezala karakterizatuta eta bereziki apainduta egongo den Zubikoa pilotalekuan. Martxoaren 29an (18:30) izango da emanaldia eta Aloña Mendin diharduten 110 bat gimnastek parte hartuko dute. Sarrerak www.oñati.eus eta Txokolateixan egongo dira salgai.



MANDI IRTEERA / MARTXOAK 16

IZARRAITZ MENDIKATEA

Azkoitia-Kakuta-Erlo-Xoxote-Azpeitia

Gipuzkoa erdi aldean, Urola bailaran barrena izango da Aloña Mendik martxorako antolatu duen irteera. Azkoitian abiatuta, **Kakuta** (940m), **Erlo** (1030m) eta **Xoxote** (912m) mendiak igoko dituzte, Azpeitian amaitzeko (14,5km eta +1100m). Xoxoteko aterpean salda beroa hartzeko aukera egongo da. Izena emateko epea: **martxoak 6-13**, alonomendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte.



Kakuta gailurreko ikuspegia

'GAR', kirol inklusiboa sustatzen jarraitzeko lagun berria



'Bizi Hadi' kirol proiektu inklusiboak taldeko kide berria, **GAR** maskota, aurkeztu zuen otsailaren 28an herriko plazan egindako ekitaldian. "Une zailetan, atzeraka, bakarrik indarra hartzeko egin behar dugula gogoratuko digun lagun berria da", azaldu dute taldekideek. Poliki poliki hazten ari den proiektua da 'Bizi Hadi', eta herritarrei eskerrak emateko modu bat ere izan zen ekitaldia, nahi zuten herritar guztiak izan baitzuten taldea ezagutu eta baliabideak (*hand bike, aulkiak...*) probatzeko aukera. Gogoratu, desgaitasunen bat duten pertsonen kirola egiteko aukera ematea dela taldearen helburu nagusia, kirolaren bidez pertsona horien osasuna eta autonomia hobetzen laguntzeko, eta, azken finean, integrazioa sustatzeko.

Bueltan da OÑATIKO DUATLOIA

- > Martxoaren 29an jokatu da.
- > Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa izango da

lazko etenaren ostean, bueltan da berriz ere Oñatiko Duatloia, eta ez nolnahi, gainera, bertan izango baitira jokoan Gipuzkoa eta Euskadiko txapelak, *Estandar* distantzian (10km. korrika / 38km bizikletan / 5km korrika). Korrikako ibilbidea (5m) ohikoa izango da, herriko kaleetan zehar. Lehen sektorean bi buelta emango dizkiote, eta hirugarrenean bakarra.

Bizikletako sektorean duatletak San Prudentziora joango dira eta, bueltan, -Santipillautik igarota- Urtia-gainera igo beharko dute. Ondoren, berriro Elorregiraino joan, eta bueltan berriz ere Santipillauko aldapa igo eta plazan amaituko dituzte bizikleta gaineko lanak.

Ibilbide egokitua ere egongo da aukeran, distantzia hauekin: 3,8km. korrika, 16,3km. bizikletan, eta 2,5km. korrika.

BOXEAK PILOTALEKUAN

Aurtengo duatloiko berritasun nagusia trantsizioak egiteko boxeek kokalekuan egongo da. Orain arteko edizioetan Foruen plazan egon izan da boxe gunea, baina aurten plazako pilotalekuan egongo da. Hori bai, probaren hasiera eta bukaera plazan izango dira, ohi bezala. Guztira, 250 bat lagunek parte hartuko dute, eta arratsaldeko 15:20 eta 15:35 artean egingo dira irteera mailakatuak.

Debagoiena taldeko oñatiarrak igoera fasean



FUTBOLA Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko jokalariek biltzen dituen Debagoiena senior mailako nesken taldea Ohorezko Erregional mailara igotzeko fasera sailkatu da. Txapeldunak izan dira Gorengo Mailako ligako beraien multzoan —bi multzo daude— eta orain beste ligaxka bat jokatu dute multzo bakoitzeko lehen bost sailkatuekin osatu diren bi taldetan banatuta. Hiru talde igoko dira Ohorezko Erregionalera: multzo bakoitzeko txapelduna, eta bigarren sailkatuen artean jokatu den *play off*-eko irabazlea. Debagoiena taldean 6 oñatiar ari dira —Maialen Txintxurreta falta da argazkian— eta Aitor Guridi 'Txisto' da entrenatzailea, Ruben Blancorekin batera. laz galdutako maila berreskuratzeko gogotsu eta itxaropentsu daudela esan digute.

Txintxurreta eta Mendibil irabazle boulderrean



Urtero bezala, lagun arteko giroan jokatu zen txapelketa


Urtero lez, inaute larunbatarekin batera jokatu zen Oñatiko Eskalada Txapelketa, hemezortzigarrena, Zubikoako boulderrean. Denera, 45 lagunek parte hartu zuten —mozorrotuta joatea izaten da baldintza— eta lehia estuaren ostean Leire Mendibil lukotarra (Araba) eta Danel Txintxurreta izan ziren irabazleak. Ane Erostarbek eta Maddi Azkorbebeitiak osatu zuten podiuma emakumezkoetan, eta Martxel Gerekak eta Aner Aranzadik gizonezkoetan. Ohi bezala, urre, zilar eta brontze kolorez margotutako katu-oinak jaso zituzten sari sinboliko gisa



'LAGUNEKIN TOPA!'

Potx eta Lotx pailazoen ikuskizun berria estreinatuko dute martxoaren 16an

Izen bereko **diskoa ere grabatu dute Euskal Herriko beste hainbat pailazo lagunekin batera**



OHOLTZA GAINEKO
IBILBIDEA
OSPATZEKO,
XABI SOUND
ETA IZASKUNEK
FESTA ERRALDOI
BAT PRESTATU
DIETE PAILAZOEI,
BAINA HAUEK,
URDURI, BEHAR
BAINO LEHENAGO
IRITSI DIRA
FESTARA, ETA
HOR HASI DIRA
KOMERIAK

◀ **Urretxuko**
Labeaga aretoan
estreinatuko dute
ikuskizun berria
martxoaren 16an
(17:00)

Adi umeak, adi gurasoak, hemen baita Potx eta Lotx pailazoen ikuskizun berria: '**Lagunekin topa!**'. Oñatiko pailazoen bosgarren lana da jada, zenbaki borobila, eta ospatu egin nahi dute, orain arteko ibilbidean egindako lagunekin topa eginez.

Ikuskizun berezia izango dela aurreratu dute pailazoen, disko bat ere grabatu baitute beraien abesti kuttunenak bertsionatuz Euskal Herriko pailazoen kolaborazioarekin.

IKUSKIZUN BERRIA

Ospakizun bat dago Potx eta Lotxen ikuskizun berriaren oinarrian. Oholtza gaineko ibilbidea ospatzeko asmoz, Xabi Sound eta Izaskunek festa erraldoi bat prestatu diete pailazoei, baina hauek, urduri, behar baino lehenago iritsi dira festara, eta, denbora irabazi nahian, Izaskunek eta Xabi Soundek orain arteko ibilbidean ezagututako lagunak (Rikardo Anakardo barrakeroa, Suzi azafata...) deituko dituzte pailazoak en-

JUANJE MARGOAK
627 818 247

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teiltuak * Fatxadak * Igozailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

"Hasiera-hasieratik gure ibilbidea jarraitu duten guztiengan pentsatuta sortu dugu ikuskizuna. Beraientzako opari moduko bat izatea nahi dugu"



"Gurpil ero moduko batean bizi gara eta, batzuetan, ondo dago hortik atera eta egindako ibilbidea elkarrekin ospatzeko tartea hartzea"

tretenitzeko asmoz, eta hauekin batera hamaika abentura biziko dituzte Potx eta Lotxek.

Ohi bezala, Danel Teran eta Ander Murillo aktoreek ere parte hartuko dute ikuskizunean, eta Teranen (Izaskun) esanetan, ibilbidea ospatzeko bai, baina bizitza bera ospatzeko aitzakia ere bada antzezlan hau: "Gurpil ero antzeko batean bizi gara askotan, eta batzuetan ondo dago hortik atera, inguruan duguna ikusi, egindako ibilbidea errepasatu, estimatu eta hori elkarrekin ospatzeko tartea hartzea. Elkarrekin topa egitea".

Itziar Arkauzek (Lotx) dio orain arte eta hasieratik beraien ibilbidea jarraitu duten guztiengan pentsatuta

sortu dutela ikuskizuna: "Beraientzako opari moduko bat ere bada lan hau, hasiera-hasieratik gurekin egoteagatik, inork ezagutzen ez gintuenean ere. Noski, beti da plazera ikusle gobernatzailearen jantzia eta pozarren hartuko ditugu horiek ere denboraldi berri honetan".

ESTREINALDIA

Martxoaren 16an estreinatuko dute ikuskizun berria Urretxuko Labeaga aretoan eta, ondoren, Euskal Herrian zehar ibiliko dira. Oñatirako oraindik ez daukate datarik lotuta, baina berandu baino lehen egongo direla ziurtatu digute. www.potxetalotx.eus atarian kontsultatu ahal izango dira hurrengo datak.

Disko berezia, oholtza gaineko 5. denboraldia ospatzeko

» Potx eta Lotxen abesti kuttunen bertsioak egin dituzte. » Takolo, Pirritx, Porrotx eta Marimotots bezalako pailazoen ere parte hartu dute diskoan



Ikuskizun berriarekin batera, izen bereko diskoa ere plazaratu dute Potx eta Lotx pailazoenak. Inoiz grabatu duten diskorik bereziarena dela adierazi du Josu Zubiak (Potx), izan ere, orain arteko ibilbidean sortutako abestirik kuttunenak aukeratu eta horien bertsioak egin baitituzte. Eta hori gutxi balitz, Euskal Herriko beste hainbat pailazorekin batera grabatu dute. "Bidean egin ditugun lagun guztiarekin ospatu nahi genuen gure oholtza gaineko bosgarren denboraldi hau eta, horregatik, diskoan parte hartzeko gonbita luzatu genien. Dakigula, inoiz ez da horrelakorik egin Euskal Herrian, eta aspalditik genuen guztiok batu eta elkarrekin zerbait pollita egiteko gogoia. Segituan jaso genuen gainontzeko pailazoen baiezkotza", adierazi du Zubiak. Ander Murillok (Xabi Sound) aktoreak esan du hunkigarria izan dela berak txikitzen entzuten zituen ahotsak orain disko honetan entzutea; hala nola Takolo edota Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Gazte eta helduek nostalgia puntu batekin entzungo dutela diskoa dio Anderrek

Urtero lez, **Pernan Goñi** ilustratzaileak egin ditu liburuxkako ilustrazioak eta Josu Zubiak abestien moldaketak. **Oriol Flores** bateriaren eta **Iker Laurobaren** gitarren laguntzarekin grabatu dute diskoa Gaztain estudioan, Eñaut Gaztañagaren eskutik, eta dagoeneko entzungai dago ohiko plataforma digitaletan.

MAKUSI plataforman ostiralero



Oholtzan ez ezik, ostiralero ere ikusi ahal izango dugu Potx eta Lotx pailazuen telebista saioa EITB-k haur eta gaztetxoentzat sortutako MAKUSI plataforman. Urtarrilean eman zioten hasiera hirugarren denboraldiari eta aurreratu dutenez, ikasturte osoan egongo da ikusgai Nerea Mazo aktorearekin batera egiten duten saioa.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Bereaz Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



EMAKUMEEK IDATZIA

- > Emakumeek konposatutako obrak abestuko ditu **Hots Abesbatzak** martxoaren 8an
- > Bide batez, aspaldiko **emakume dendariei** aitortza egingo zaie kontzertuan

Martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, EMAKUMEEK IDATZIA izeneko kontzertu berezia eskainiko du aurten ere Hots Abesbatzak. "Ohiko programazioetan %5aren azpitik egoten da emakumeen presentzia, eta estatistika hori hankaz gora jartzea da kontzertu honen helburuetako bat", adierazi dute abesbatzako kideek. Hala, Idoia Asurmendi (*Itsasoa ari zait*), Junkal Guerrero (*Taupaka*), Eva Ugalde (*Agur, maite*) edo Diana Perez (*De mulierum natura*) bezalako konposatzaileen zortzi obra eder abestuko dituzte.



SANTA ANA
ANTZOKIAN IZANGO
DA KONTZERTUA,
MARTXOAREN 8AN,
18:00ETAN.
SARRERA DOHAINIK

AITORTZA DENDARIEI

Iaz bezala, aurten ere aitortza berezi bat egiteko baliatuko dute kontzertu berezi hau Ganbara Faktoriakoek. Iazkoan emakume zaintzaileak eta, bereziki, San Martin egoitzako langileak omendu zituzten, eta aurten emakume dendariei egingo diete aitortza, batez ere urte luzez Oñatiko dendetan lan egin duten adineko emakumeei.

Kontzertua Santa Ana aretoan izango da, 18:00etan. Sarrera dohainik. Piano jole lanetan Amaia Zipitria ariko da eta zuzendari lanetan Aitor Biain-Bidarte.

KANTU ESKOLA KANTARI

MARTXOAK 30, SANTA ANA, 19:00

Urtero bezala, udaberrian sartzearekin batera Ganbara Faktoriako harrobiko taldeek (Ganbara Txiki, Hasiberriak eta Ikastetxeak Kantari) kontzertua eskainiko dute. Denera 70 bat neska-mutiko izango dira eta hiruhilabete honetan landutako obrak kantatuko dituzte. Programa bariatua izango da, baina euskal musikak protagonismo handia izango du. Aitor Biain eta Aitor Garitano izango dira zuzendariak, eta piano jole lanetan Amaia Zipitria ariko da. Kontzertua martxoaren 30ean izango da, Santa Ana antzokian (19:00) eta sarrerak 5€ balioko du. Aurrez Txokolateixan eta www.oñati.eus webgunean egongo dira eskuragai.





Musika bandak haur eta gaztetxoak bete nahi du pilotalekua

- > **Kontzertu didaktikoa** eskainiko du martxoaren 16an
- > Bigarren zatian **super-bingo musikatua** egingo dute

Berezia izango da musika bandak martxoaren 16an eskainiko duen kontzertua. Herritar guztiak daude gonbidatuta, noski, baina, batez ere haur eta gaztetxoei zuzendutako emanaldia izango da. Hala, kontzertua hasi aurretik, eguerdiko 12:00etan, musika eskolako 20 ikaslek –aurten instrumentua aukeratu behar dutenek– musika banda barrutik ezagutzeko aukera izango dute, eta Aitor Biain zuzendaria gidari dutela, banda osatzen duten instrumentu ezberdinak gertutik ikusi eta entzuteko aukera ezin hobea izango dute.

Gainera, kontzertua bera ere '0 aulkitik', hau da, bandako kideen artean eserita entzuteko aukera izango dute, taldeko kide balira bezala. Etorkizuneko musikariak ez ezik, etorkizuneko publikoa ere badira gazteak eta, beraz, musika eskolako ikasle guztiak eta beraien familiak daude gonbidatuta kontzertura.

SUPER-BINGO MUSIKATUA

Kontzertu berezi honek bi zati izango ditu. Lehenengoan **Hamelingo Txistularia** ipuina musikatuko dute, Miel Guridi narratzailearen laguntzarekin. Eta bigarren zatian super-bingo musikatua egingo dute, **Potx** eta **Izaskun**-en laguntzarekin; entzuleek kartoi bana izango dute eta bingoan jolastuko dute, baina zenbakien ordez abestiak ezagutu beharko dituzte.

Bigarren zati honetan Oñatiko **Banda Gaztea**-k ere parte hartuko du, guztira 80 bat laguneko banda osatuz. Pilotalekua ere bereziki apainduta eta girotuta egongo da, eta bandako kideak ere **super-heroi** jantzita egongo dira. Kontzertua, ohi bezala, eguerdiko 13:00etan hasiko da, eta sarrera (3€) ordaindu beharko da. Aurrez Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian eskuratu ahal izango dira.

Urrexola auzoari buruzko liburua berrargitaratu du Artixak

Hainbat herritarrek egindako eskaerak aintzat hartuz, 'Urruxola: auzo txiki baten historia' liburuaren argitaraldi berria egin du Artixa kultur elkarteak. Auzoaren historia, mapa, bizimodua, auzotarren testigantzak eta bertako parrokian apaiz egondako elizgizon batek idatzitako 'Ritual Urrejolano' testua jasotzen ditu, besteak beste, liburuak. Artixa taldekoak pozik daude liburuak izandako harrerarekin. Txokolateixan eta Haritza liburutegian eskura daiteke liburua.

Malko taldea 'Katapulta Tour' zirkuitorako hautatu dute


Musika eta arte eszenikoe-tako talentu gaztea sustatzen laguntzea da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxa Fundazioak antolatzen duten Katapulta Tour ekimenaren helburua, eta 2025eko deialdira aurkeztu ziren 148 proposamenetatik arte eszenikoetako bi proiektu eta 8 musika talde hautatu dituzte, tartean Malko oñatiarra. Horri esker, lau kontzertu eman, sustapen bideo bat grabatu eta arlo ezberdinen inguruko (ekoizpena, eszenografia...) formazio programa batean parte hartuko dute.

Ramon Irizar kalea, 3
Telf: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Goi mailako ipuin kontalariak 'Ahoz-Aho' jaialdiaren eskutik

Quico Cadaval galziarrak helduentzako saioa eskainiko du martxoaren 12an, eta Larraitz Urruzola euskal-galziarrak haurrentzako, hilaren 27an

Oñatik bat egin du aurten ere Intujai Teatrok antolatuta, Tolosa eta Ordiziako udalen eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, egingo den AHOZ-AHO Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiarekin. Ahozkotasunaren eta ipuin kontalaritzaren balio artistikoa aldarrikatzea da jaialdiaren helburua eta, urtero bezala, aurten ere Euskal Herriko nahiz nazioartetik etorritako goi mailako kontalariak parte hartuko dute jaialdian, eta horietako bi Oñatira ere etorriko dira, udal liburutegiaren eskutik.

QUICO CADAVAL ('Fantasmas familiares')

Aurtengo Ahoz-Aho jaialdiko 'plater nagusietako bat' da Quico Cadaval (Ribeira, Galizia, 1960). Aktore, antzerkigile eta idazle izateaz gain, istorioak kontatzeko artearen erreferenteetako bat da Espainian eta Portugalen. Gurasoen tabernan hazteko zortea izan zuela dio berak, bertatik pasatzen ziren marinela, arrain saltzaile edota ferrialariaren istorio beldurgarriak bizi eta entzuteko aukera izan zuelako, eta txikitatik zaletu zen istorioak kontatzen, lanbide artistiko bat zela jakin gabe. Oñatin eskainiko duen 'Fantasmas familiares' saioan Galizia bere jaioterriko istorioak kontatuko ditu, familiaren ahozko tradizioak jasotako kontakizunak.

LARRAITZ URRUZOLA ('Joan-etorriko istorioak')

Tolosarra sortzez, orain dela urte dextente Galiziara joan zen eta bertan dihardu Txotxongilo zein Kontalaritza ikuskizunak sortzen galegoz. Oñatin eskainiko duen 'Joan etorriko istorioak' saioan, Euskal Herria eta Galizia arteko bizitzan aurkitutako istorioak partekatuko ditu. Ipuin herrikoiak eta bi identitate kulturalen mitologia eta tradizioei buruzko hausnarketa.

AHOZ-AHO OÑATIN



► MARTXOAK 12

QUICO CADAVAL

'Fantasmas familiares'
Helduentzako saioa.
Zine aretoan, 19:00

► MARTXOAK 27

LARRAITZ URRUZOLA

'Joan etorriko istorioak'
Umeentzako saioa (*),
euskaraz. Haur
liburutegian, 18:00

(*Gonbidapenak
martxoaren 16tik aurrera

FILOSOFIA berbagai udal liburutegian

MARTXOAK 19
Liburutegian, 19:00



Normalean literaturarekin lotu ohi ditugu liburutegiak, baina nobela, komiki edo poesia liburuez gain, liburutegietan badira beste jakintza arlo askotako (zuzenbidea, soziologia, filosofia, historia...) edukiak ere. Izan ere, horixe baita liburutegien helburuetako bat, alegia, pertsonak osotasun ikuspegi batetik elikatzea edo janztea.

Horregatik, aurrerantzean, ezagutza arlo ezberdinetako solasaldi-tertulia saioak antolatzeko asmoa dute udal liburutegian, eta, hasteko, filosofiari buruzkoa egingo da **Maitane Nerekan** filosofia irakaslea eta **Lizar Begoña** idazlearen eskutik. '**Nola baldintzatzen gaitu adinak?**' du izenburua saioak, eta adinaren inguruko hausnarketa komunitarioa egitea da asmoa. Esan beharrik ez dago, adin guztietako herritarrak daudela gonbidatuta.

Unai Elorriagarekin tertulia irekia

Udal liburutegiko Tertulixan Euskaraz taldeak gonbidatuta, Unai Elorriaga etorriko da **apirilaren 1ean** (18:30) bere azken nobelaz ('Francesco Pasqualeren bosgarren arima') hitz egitera. Saioa irekia da.



ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (III)

Oñatiko baserriak eta auzuak



Uribarri auzoko hiru baserri: ezkerrekoa, Azkarraga Haundixa; eta eskumakuak, Aingerukua eta Soldadukua. (Argazkizak: R. Altuna)

✍ ROBERTO ALTUNA

“Eta egixa zixuan harrosko harek. Soralezeko neskaak, Azkontegi, Artxubi, Goixenetxe, Baltzategi, Erostege, Txope, Urriagain, Aingeru eta Azkarragakuak, danak gura euen euren gure mutil hau. Eta ez hurrekuak bakarrik, baita Araotz, Olabarrieta, Urrexola, Zubillaga, Garibai, Zañartu eta beste auzuetakuak be, ba, alderdi danetan baekixein Zabaletako Iñaxio Mari mutil eder, ospetsu eta etxe onekua zana. Hamaika neska gaztek begiratu otsan gustura, noizbaitteko aizkol jokuan, plazako buru eta agintari maittia moduan ikusi euenian”.

Txomin Agirrereren ‘Garoa’ nobelako zatixa moldauta.

>> SINONIMUAK

Zirkulu barruko berba horreik danak Euskal Herriko leku desbardiñetan jasota dagoz eta atxurrekin lurra azal-azaletik garbittu, bedarra kendu, baiña lurra ikutu edo harrotu barik esan gura daue, hau da, lur azaltxua besterik ez kentzeia.

Honekin lotuta, baiña, gure galderia beste hau da: esangura bera dakoin berba honeittatik zein da Oñatin ebaltan dana eta zeregin horretarako Euskaltzaindiak be ontzat emun dauena?

Eta zela esaten xaugu atxurkada bat joaz harroketan dan bedar eta guztiko lur pusketiari edo zohixari?



AGENDA

AZOKAK

MARTXOAK 9 / 10:30-14:15

Emakume artisauen azoka

Martxoaren 8aren harira antolatutako azoka [Berdura plazan](#)

MARTXOAK 15 / 10:00-14:00

Bigarren eskuko azoka

Parte hartzeko bigarre.azoka2023@gmail.com helbidera idatzi [Foruen plazan](#)

EKITALDI BEREZIAK

MARTXOAK 25 / 18:30

Txokolatada

Txokolatea eta bolloa (2€) [Pake Leku](#)

MARTXOAK 27 / 17:00

Bingo berezia

Bingo berezia opariekin [Pake Leku](#)

ERAKUSKETAK

MARTXOAK 24 - APIRILAK 4

'HABITAT: Euskaldunon historia mapen bitartez'

Martxoaren 24an (18:30) bisita gidatua Kultur etxean (egunero, 18:00-20:00).

HITZALDIAK

MARTXOAK 24 / 18:00

'Incontinencia urinaria. ¿Qué podemos hacer?'

Hizlaria: M. Carmen Sacristán. [Pake Leku](#)

MARTXOAK 25 / 19:00

'Ezkutatu duguten historia'

Hizlaria: Idoia Arrieta, historialaria. [Zine aretoan](#)


APIRILAK 1 / 19:00

'Kepa Anabitarte: XX. mendeko abertzaletasun ahaztua'

Hizlaria: Eneko Bidegain, idazle, kazetari eta irakaslea. [Zine aretoan](#)

'Renata', Kamikaz kolektiboaren eskutik

ANTZERKIA MARTXOAK 23, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00



Kamikaz Kolektiboaren antzezlan berria ikusteko aukera izango dugu martxoaren 23an. Erritmo frenetiko eta komikoa duen lana. Musikak ere garrantzi handia du. Renata etengabe hil eta pizten da, esku artean hil ala biziko misio bat daukalako: pantailen artean desitxuratzen ari den sistema aldrebes baten erdian, lortuko ote du nola bizi ahaztu duen jendartea esnatzea? Heriotza eta bizitza. Errealitatea eta mundu birtuala. Kolektiboa eta bakardadea.

Bertso-afaixa Aixotu-k antolatuta

MARTXOAK 14, ANTIXENA GAZTETXEAN, 21:00



Aixotu euskara taldeak antolatuta, bertso-afaria egongo da martxoaren 14an, gaztetxean, **Saioa Alkaiza**, **Aissa Intxausti** eta **Miren Artetxe** bertsolariekin. Afaritarako menua hauxe: txorixua sagardau erara; bakailaua tomatetan; txarri-solomua patata puriak; gaztaia, irasagarra eta intxaurrek. Txartelak Arrano tabernan daude salgai 15/25 eurotan. Menu begarria gura izanez gero, txartela erosterakoan esan. Animatu, giro ederra egongo da eta.

APIRILAK 2 / 10:00

'Ura-lurralde: hainbat krisiren pairatzaileak'

Hizlaria: Iñaki Antigüedad, geologo eta hidrologoa. [Santa Ana](#)

APIRILAK 2 / 19:00

'GEBARA: Oñatiko jaunen leinuaren 1000 urteko historia'

Hizlaria: Iñigo Larramendi. [Zine aretoan](#)

IRTEERAK

MARTXOAK 30 / 9:00

Gazteluaitzera ibilaldia

Nabarraldeko antolatuta. Sindika ostatu aurretik abiatu tea Bellotzatik bueltatu.

LITERATURA

MARTXOAK 12 / 19:00

Ipuin Kontaketa: 'Fantasmas familiares'

Quico Cadaval narratzaile galiziarren eskutik. Helduentzat. [Zine aretoan](#)

MARTXOAK 27 / 18:00

Ipuin Kontaketa: 'Joan etorriko istorioak'

Larraitz Urruzola (Euskal Herria-Galizia) ipuin kontalariaren eskutik. [Haur liburutegia](#)



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



Lapur + Mikosis

Martxoak 15, Gaztetxean, 19:00

KONTZERTUA Oñati eta Gernikako rock (post-hardcore, post-punk) taldeen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu Burrunda faktoriak antolatuta. Oñatiko hirukotea Anje Arlanzonek (bateria) Unai Agirrek (baxua) eta Anje Maiztegik (gitarra eta ahotsa) osatzen dute. Iaz sortutako taldea da eta energiaz beterik daude. **Mikosis** hiru neskek osatutako taldea da eta Gaztea Maketa Lehiaketako finalean aritu dira.



APIRILAK 1 / 18:30

Literatura solasaldia

Unai Elorriaga idazlearekin, bere azken nobelaz. Saio irekia. [Udal liburutegia](#)

MUSIKA

MARTXOAK 8 / 18:00

'Emakumeek idatzia'

Hots abesbatzaren kontzertua. [Santa Ana](#)

MARTXOAK 16 / 13:00

Musika Banda

'Ukitu musika' kontzertua. [Pilotalekuan](#)

MARTXOAK 16 / 12:30

Izaki Gardenak

'Orube' disko berria aurkeztuko dute, matinee kontzertuan. [Gaztelekuan](#)

MARTXOAK 21 / 19:00

RAP gaua

Ixsiyroi, Andutx, Mambo studio, Mozolo eta *DJ Kirrin*. [Antixena gaztetxean](#)

MARTXOAK 27 / 18:30

Aloña Abesbatza eta Musika Eskola

Pake Lekuko abesbatzak eta musika eskolako ikasleak. [Santa Ana](#)

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztekoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Martxoak 6 - 10

ZINE KLUBA:

REINAS

NAGUSIAK:

BRIDGET JONES:

LOCA POR ÉL

GAZTETXOAK:

FLOW, UN MUNDO

QUE SALVAR



Martxoak 13 - 17

ZINE KLUBA:

MI ÚNICA FAMILIA

NAGUSIAK:

EL SECRETO DEL

ORFEBRE

GAZTETXOAK:

POLICAN



Martxoak 20 - 24

ZINE KLUBA:

AÚN ESTOY AQUI

NAGUSIAK:

LEE MEILLER

GAZTETXOAK:

PADDINGTON:

AVENTURA EN LA

SELVA



Martxoak 27 - 31

ZINE KLUBA:

SECRETOS DE UN

CRIMEN

NAGUSIAK:


LOS AITAS

GAZTETXOAK:

LURRAK EZTANDA

EGIN ZUEN EGUNA

Looney Tunesen filma



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Martxoak 3, 4, 12, 13, 21, 22, 23 eta 31. Apirilak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Martxoak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25. Apirilak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Martxoak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27. Apirilak 4, 5 eta 6.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Martxoak 1, 2, 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30. Apirilak 7 eta 8.

ODOL ATERALDIA

MARTXOAK 21 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

DUPLEXA SALGAI

Oñatiko erdigunean dagoen duplex etxebizitza handi bat saltzen da. Garajea aukeran. Interesatuek deitu: 660 156 664.

GARAJEA

erosi edo alokatu nahi dut Errekalde edo Moiuia kale inguruetan. Deitu: 660 758 004.

EROSI

Oñatiko fabriketan egindako produktu, katalogo, erreminta eta liburu zaharrak erosten dira. Deitu: 605 707 713.

ETXEBIZITZA SALGAI

Babes ofizialeko 3 logeladun etxebizitza salgai Ugarkalde auzoan. 662 078 883.

INGELES IRAKASLEA

Ingelesko irakasle partikular bat behar dugu 5. mailako haur bati astean egun baten (ordu 1) eskolak emateko. Interesatuek deitu: 629 373 919

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



Naturatik datorren berrikuntza.